

Euskadiko Turismoaren *Kode Etikoa*



etikoa
Turismo Euskadi

Zer da *Turismoaren Kode Etikoa* eta zergatik da beharrezkoa?

Helmuga turistiko bat ez da mapa batean jartzen den txintxeta bat edo sare sozialetan argitaratzen den post bat. Lurralde bat da, kultura bat, ekosistema bat... Gizarte gisa sortzen ari garen eredu turistikoaren aldaketak nabari dituen izaki bizidun bat da. Turista eta herritar gisa hartzen ditugun erabakiek garrantzia dute. Gaur turismoa egin eta sortzeko darabilgun ereduak ahalbidetuko digu turismoa egin eta sortzen jarraitzea bihar ere. Eta etzi. Etorriko direnei utziko diegun jasagarritasun eta etika ondarea da.

Munduko turismoaren garapenaz eta turismo arduratsua lortzeko beharraz jabetuta, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak, Basquetourren bidez, Munduko Kode Etikoarekin bat egin zuen 2014an, eta euskal gizarteak turismo jasagarri eta arduratsua bultzatzeko duen konpromisoa berretsi zuen.

Euskadiko Turismoaren Kode Etikoa Turismoaren Munduko Kode Etikoaren egokitzapen bat da, eta zenbait turismo agenteren lankidetzari esker osatu da. Agente horiek beren ikuspuntua eta sektorean duten esperientzia eskainiz parte hartu dute proiektuan, gure kulturaren eta identitatearen berezko ezaugarriak kontuan hartuta. Kodeak zenbait printzipio orokor biltzen ditu, eta horien helburua da turistak, turismo agenteak eta herritarrak gidatzea, ingurunea, pertsonak eta haien oinarrizko eskubideak errespetatuko dituen turismo eredu bat lortzeko.

Turismo erakunde bat bazara eta Euskadiko Turismoaren Kode Etikoarekin bat egin nahi baduzu, sartu hemen:

www.euskadietikoa.eus

*Helmuga turistiko bat
ez da mapa batean jartzen
den txintxeta bat*



*edo sare sozialetan
argitaratzen den post bat*

SAN JUAN DE GAZTELUGATXE, BIZKAIA

01/01



Gure eredua Euskadiko Turismoaren Kode Etikoa

Zer gara, helmuga turistikoa edo bizitokia? Turistak edo bidaiariak? Bisitatzen gaituztenentzako gozame-na edo herritarrentzako lasaitasuna? Oparotasuna edo sustraiak? #Euskadi edo Euskadi?... Galdera batek labur-biltzen du dena: zer eredu turistiko izan nahi dugu?

2014an NBE Turismoko kide egin gi-nenetik daramagu galdera horri erant-zuten, eta bisitarien eta bertako herritarren balorazio onenak jasotzen dituen helmugetako bat gara. 2019an beste urrats bat egin, eta Euskadiko Turismoaren Kode Etikoa sortu genuen.

Turisten, herritarren eta turismo agen-teen arteko akordio bat da. Eskubide eta betebeharren quid pro quo mo-duko bat. Akordio bat ixteko bostekoa. Euskaldunen erara, nola ez. Ba al da modu zintzoagorik?

*Zer gara, helmuga
turistikoa edo
bizitokia?*

Turistak edo bidaiariak?

01/01

ZAZPIKALEAK, BILBO



#Euskadi edo Euskadi?



1. Turista eta *bertakoa errespetatuko ditut*. Haien ohiturak eta tradizioak. Haien aisialdia eta atsedenaldia.

2. Aniztasunean, *berdintasuna defendatuko dut*. Zarena zarela, zaren bezalakoa zarela.

3. Gure ingurunea, paisaiak eta *natur baliabideak babestuko ditut*.

4. Bertako produktuak eta kultura *zaindu, kontsumitu eta gozatuko ditut*.

5. Unescok Gizadiaren Kultura Ondare izendatutako *baliabide turistikoak zainduko ditut*.

6. Turismo-sektorea eta bere *profesionalak zainduko ditut*.



1. Elkarrekiko errespetua

Munduko lekuak adina tradizio, bizimodu, praktika sozial, lege edo ohitura kultural daude. Gureak eta bisitatzeko gaituzten pertsonenak eza-gutzea eta errespetatzea da Euskadi helmuga turistikoa bat baino zerbait gehiago bihurtzeko modurik errazena.

Errespetua turistari. Nahiz eta gure kulturen artean milaka kilometro egon. Gure sinesmenek hizkuntza ezberdinak badarabiltzate ere, ez dago enpatia baino hizkuntza unibertsalagorik. Tokiko turismo agente garen aldetik, bisitatzeko gaituztenak errespetatzeko konpromisoa hartzen dugu, baita haien gustuen eta beharren gainean informatzeko konpromisoa ere, haien espektatibak hobeto ulertu eta ase ahal izateko.

Eta errespetua hemen bizi garenei. Gure egunerokoari eta gure gauei. Gure lanari eta gure atsedeneri. Gure lege, ohitura eta tradizioei. Turistek gure lurraldea bisitatzeko moduak ez dezala gure bizimodua aldatu.



01/04

AMURRIO, ARABA

*Turistek gure
lurraldea bisitatzeko
moduak ez
dezala gure
bizimodua aldatu*



02/04

ALDE ZAHARRA, DONOSTIA



03/04

SAN ANTON ZUBIA, BILBO



04/04


HONDARRIBIA, GIPUZKOA



2. *Berdintasuna* aniztasunean

Gure itsasoaren urdinari ez zaio azalaren kolorea axola. Gure herrien iragan infinituari ez zaio adina axola. Gure paisaien aniztasunari ez zaio genero identitatea axola. Tenplu bi-lakatutako sukaldez josita dagoen gure gastronomiari ez zaio erlijioa axola. Gure lurrari ez zaio axola nolako gaitasunak dituzun, nor zaren edo zertan sinesten duzun, nor maite duzun, zer entzun edo ikusten duzun, zer sentitzen duzun, nola ibiltzen zaren... Eta guri ere ez. Bidaiatzeak adimena irekitzen badu, Euskadi aurreiritziak ezabatzerira irekita dagoen ate erraldoi bat da. Zain gauzkazue, besoak eta adimena zabalik.

*Nahiz eta gure
sinesmenek hizkuntza
ezberdinak hitz egin,
gure itsasoko
urdinari ez zaio axola
azal kolorea*



01/04

BILBO




02/04

OION, ARABA



03/04

DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN



04/04

GASTEIZ



3.

Ingurumenari *begirako* *erantzukizuna*

Gure itsasoak zakarra badirudi ere. Gure berdea oso berdea bada ere. Gure sustraiak oso sakonak badira ere. Gure mendiak oso garaiak badira ere. Gure kostek infinituak badirudite ere. Gure herri eta tradizioak oso aspaldikoak badira ere. Oso Euskadi bagara ere, Euskadi izaten jarraitu behar dugu. Gure lurra baliotsua eta kaltebera da. Ingurumena zaindu behar dugu etorkizuneko belaunaldientzat.

Turismo agente gisa, konpromisoa hartzen dugu baliabide naturalak aurrezteko, ahalik eta gehien murrizteko gure jardueraren arrastoa eta turista eta bisitarien joan-etorriak denboran zehar banatzeko.

Lur honetako apopilo zarenez, eraman zurekin aztarnarik uzten ez duten oroitzapenak. Arrasto onena izango da, beste batzuek beti beren etxea izango denerainoko bidea aurkitu ahal izan dezaten.

*Ingurumena zaindu behar dugu
etorkizuneko belaunaldientzat*



ARAMAIO


03/03

*Gure lurra
baliotsua
eta kaltebera da*



ARABAKO ERRIOXA

02/03



HONDARRIBIA

01/03



4. Tokiko *tradizioa* eta *kultura*

Hemen gastronomiak pintxo eta izar forma du. Kirolak harri, egur eta txapa soinua egiten du. Arteak burdina eta titanioa bezatu nahian jarraitzen du. Modernitatea aspaldiko hizkuntza batean mintzo da. Moda, kultura, jaiak eta tradizioak... Tokikoa da, oraindik ere, gure ezaugarri unibertsala. Hori mantentzea gure izaerari eustea da, aurrerantzean ere garena izaten jarrai dezagun.

Gaur egun, edozein lekutan gauza berdinak daude jateko eta erosteko, edozein lekutan gauza berdinak ikusten ditugu erakusleihoetan eta edozein lekutan musika berdina entzuten da, baina, horrexegatik, go-goan izan behar dugu gure lurraldea ez dela edozein leku. Kontsumitu bertako produktuak bertako saltokietan. Ez dago milaka urte dituen kultura eta artisautza baino oroigarri hoberik. Eskerrik asko!





*Tokikoa da, oraindik ere,
gure ezaugarri unibertsala*

5. Gizateriaren *kultura ondarea*

Burdinazko erraldoiak, antzina-ko kobazuloak, aztarnategi arkeologikoak, historiaurreko santutegiak, baso sorginduak, bide magikoak, kostaldeko geoparkeak, biosfera erreserbak, ezinezko eskulturak, eraikin bereziak... Euskadik Unescok aitortutako baliabide turistikoak ditu.

Horiek mantendu eta babestea gure betebeharra da, baina baita bizitoki ditugun postalez gozatzen jarraitu ahal izatearen harrotasuna ere.

Gure ondarea zaindu behar dugu, bizi garen postalez gozatzen jarraitu ahal izateko




01/04

BIZKAIA ZUBIA




02/04

URDAIBAICO ERRESERBA



03/04

ALBAOLA ITSAS KULTUR FAKTORIA



04/04

EKAINGO LEIZEAK

6. Gure sektorearen eta bertako *profesionalen bikaintasuna*

Inoiz norbaitek esan zuen jendea nola sentiarazten dugun, horrela gogoratuko gaituztela. Eta Euskadik bisitatzen gaituztenengan hain oroitzapen onak sortzen baditu, hemen aurkitzen duten jendearengatik da. Gidari, ostalari, informatzaile edo merkatari izatetik haratago, leku txiki handi honen anfitrioi onenak diren turismo profesionalengatik.

Haiek dira gure aktibo turistiko nagusia. Horregatik, gure betebeharra da haien eskubideak babestea; haien gaikuntza sustatzea, tresnak eta etengabeko prestakuntza programak eskainiz; enpresentzako baldintza onenak sortzea; giza kapital egokiaren aldeko apustua egitea; sektorearen jasagarritasun ekonomikoa bermatzea, edo haien bizibidea errespetatzea, eskaintzen dituzten produktu eta zerbitzuen truke prezio justua ordainduta. Ezaugarri horiek ez dira argazkian ateratzen, baina atzean dituzten istorioak kontatzen dituzte.



Gure profesionalak Euskadiko
mila aurpegiaren irudia dira

Euskadiko Turismoaren Kode Etikoa legitimatzen duen metodologia

Turismo jasangarri baterako gure printzipio etikoak ez dira irrikak, ezta hitz politak ere. Turismoa funtsezko gaia da lurraldeetarako, oparotasun ekonomikorako eta herritarren ongizaterako.

Aukeratu dugun turismo eredua defendatu behar dugu. Gure Kode Etikoa da bidea. Horretarako, prestakuntza, aholkularitza eta laguntza metodologia eta prozesuak ditugu, baita Euskadiko Turismoaren Etika Batzordea ere.



01/01

*Gure Kode etikoa
da bidea*

URDAIBAI, BIZKAIA





Turismoaren *Etika Batzordea*

Batzorde hori partaidetzarako, elkarrizketarako eta gatazken ebazpenarako espazioa da, eta Kode hau hedatzeaz eta aplikatzeaz arduratzen da, baita jarraipena egiteaz eta betetze maila baliozkotzeaz ere.

Euskadiko Turismoaren Etika Batzordea pertsona entzutetsu, independente eta inpartzialek osatzen dute; maila moral eta integritate nabarmeneko pertsonak dira, eta nazioan edo nazioartean aitortutako eskuduntza dute zenbait arlotan (ez dute zertan lotura zuzena izan turismoarekin).

Batzordeak helburu nagusitzat du funtsezko printzipioetan oinarritutako turismo arduratsu eta jasangarria sustatzea eta horri buruz aholku ematea, baita Kodearen urraketa posibleen gaineko iradokizun, kexa edo/eta erreklamazioak kudeatzea ere.

Turismo sektorearen *konpromisoa*

Euskadiko Turismoaren Kode Etikoan parte hartu nahi duen turismo agente edo erakunde orok presakuntza prozesu bat osatu behar du Basquetourren bitartez, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko.

Dagokion prozesua gaindituz gero bakarrik jasoko ditu turismo agente arduratsua dela egiaztatzen duten diploma eta bereizgarria.


Gainera, etengabe izango ditu eskura formakuntza, aholkularitza eta bide-laguntza bere konpromisoa aktibo mantentzeko.

Euskadiko *Etika Erregistroa*

Euskadiko Turismoaren Kode Etikoarekin bat egin duten turismo agente guztiak Euskadiko Etika Erregistroan sartzen dira, Turismoaren Etika Batzordeak baliozkotutako prozesua gainditutakoan.

Euskadiko Turismoaren Etika Batzordearen ardura da erregistro hori kudeatzea eta urtero berritzea.





Informazio gehiago nahi baduzu, jo
helbide honetara:
www.euskadietikoa.eus

Gogoratu, turista eta herritar gisa har-
tzen ditugun erabakiek garrantzia dute.
Gaur turismoa egin eta sortzeko dara-
bilgun ereduak ahalbidetuko du bihar
ere bizitoki ditugun postalez gozat-
zen jarraitu ahal izatea.

Eskerrak:
Euskadiko Turismoaren Kode Etikoa
honako hauen lankidetzarekin osa-
tu da: proiektuan beren ikuspun-
tua eta sektorean duten esperientzia
eskainiz parte hartu duten hainbat
turismo agente, Turismoko Estatu
Idazkaritza (SETUR), Turismoaren
Mundu Erakundea (TME), uniber-
tsitateak, turismo lankidetzarako
erakundeak, turismo kudeaketarako
egiturak, enpresa elkarteak eta beste
erakunde publiko batzuk.

Eskerrik asko



Euskadiko Turismoaren *Kode Etikoa*



**BASQUE
TOUR** turismoaren
euskal agentzia
agencia vasca
de turismo

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

